

# Xaloa eta Ttipi-Ttapa bat egiteko ahaleaginean

9.567 euro. Nafarroako euskarazko hedabide guztientzako diru-laguntzak. Lehenengo biktima Ttipi-Ttapa telebista. Ateak itxiak ditu. Alabaina, berriz abian jartzeko lanean ari da. Udal administrazioen konpromiso bila dabiltza Xaloarekin batera telebista bakarra egituratu asmoz.

## ONINTZA IRURETA

AZKEN BILERA duela hamabost egun egin zuten Bortzirietako (Lesaka, Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzi) Euskara Mankomunitateak, Baztango Udalak, Malerreka-ko Zerbitzu Orokorreko Mankomunitateak eta bi telebistek. Ahoz behintzat denek erakutsi dute presutasuna: telebista bakarrerako pausoak emateak merezi du, udal administrazioen konpromisoa lagun. Zehaztasunak paperera eramango dituzte eta maiatzaren bukaeran ikusiko da bat datozen detaileetan.

Urtarrilaren 31tik dago itzalita Ttipi-Ttapa telebista. Alabaina, ez dute galdu telebista berrabiarazteko itzaropena. Ateak itxi eta berehala hasi zuen Ttipi-Ttapa Fundazioak bilera prozesua. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hartu zuen inizatiba eta egoera aztertzeari ekin zioten, gero irtenbideak aurkitzeko. Gutxi-asko honakoa da egin duten hausnarketa: proiektu garestia da telebista, bestelako hedabideekin alderatzen badugu, hala nola, papezko eta Interneteko edizioekin. Egitasmo potoloa da Fundazioak bakarrik finantzatzeko. Kontuan hartu beharreko beste gauza bat: Ttipi-Ttapak ez du emisio lizentziarik, Xaloa Telebistak ez duen bezalaxe. Alegalak dira biak, horrek dituen ondorio guztiekin. Hirugarren gauza bat: eremu berean bi telebista daude, eta Joxe Manuel Irigoien Ttipi-Ttapa Fundazioko

Goian, Ttipi-Ttapa telebistarako Barriola pilotariari egindako elkarrizketa. Behean, Xaloa Telebistako lan-taldea.



TTIPI-TTAPA TELEBISTA

kudeatzailearen ustez, “bada kontraesana. Ugaritasuna ongi da, baina badago nolabaiteko konkurrentzia”.

Proiektu garestia da telebista, lizentziarik gabe ari dira eta espazio txikian bi telebista daude. Egoeraren ezaugarri nagusiak horiek dira. Irtenbideak aurkitzeko berriz, bi ideia nagusi. Batetik, eta Irigoienek esana: “Ez da gauza bera kultur elkarte joatea Iruñera telebistarentzako lizentzia eskatzera ala udala joatea”. Izan ere, espazio erradioelektrikoa ondasun publikotzat hartuz, udalek lizentzia eska dezakete. Alegia, telebista sortzeko konpromiso zuzena izan dezakete udalek.



XALOA TELEBISTA

Bigarren ideia nagusia bi telebistek bat egitearena da. Ttipi-Ttapak presutasun osoa erakutsi du elkarlanean aritzeko, mehatxu egoeratik aukera egoerara pasako bailirateke. Joseba Igerabide Baztango Xaloa Telebistako arduradunak ere, elkarlanerako gogoia azaldu du. Dena dela, bere

## 9.567 euro

Umiliazioa. Iraina. Nafarroako 31 hedabidek aurkeztutako agirian hala izena du 9.567 euroko zifra, zoritxarrez, ezagun horrek.

Legez behartua dago Nafarroako Gobernua euskarazko hedabideak bultzatzera. 1986ko Euskararen Legeak hala dio. Agindutakoa betetzen duen, hori beste kontu bat da. Euskarazko hedabideetako eragileek azaltzen dutenez, 1986az geroztik Nafarroako Gobernuak ez du euskarazko hedabide publiko bat bera ere sortu eta 2008. urtera arte banatutako diru-laguntzak urriak eta berandu emandakoak izan dira.

2009ko aurreikuspenak errekor denak "ondu" ditu. 310.000ko kopurua promes egin zuten, gero 240.000koa eta hurrengo jauzia 9.567 eurora. Emandako arrazoaia, krisia. 2008. urtean 31 hedabideetan 4.851 euro gastatu zituzten publizitate instituzionalean.

Nafarroako 31 hedabideek eskaera zehatzak egin dizkiote Hezkuntza Sailari: diru-laguntza duinak

egotea eta teknikoki posible ez balitz, laguntza duinak jasotzeko bideak jartzea. Hedabideetan publizitate instituzionala jar dezatela. Itxurakeriak utzi eta Euskarabidea diruz eta edukiz hornitzea eta euskarazko hedabideen egoera hitzarmen baten bidez erregulatzea.

Oskar Zapata Nafarroako Topaguneko arduradunari eskatu diogu orain Hezkuntza Sailarekin kontuak zertan diren argitzeko: "Orain arte borondate agerpenak bakarrik entzun ditugu, baina ez dugu inolako daturik borondate hori beteko den esateko. Urtarriletik ari dira esaten 9.567 baino gehiago lortu 'nahi' dutela. Hasieran martxorako jakin 'nahi' zutela esan ziguten, martxoa joan da, orain badirudi ekainerako edo irailerako lortu 'nahi' dutela. Horren alde lanean ari direla sinestu 'nahi' dut". Zapatak adierazi digu diru-laguntzak ez badira iristen etorkizun hurbilean hedabide bat baino gehiago kinka larrian egongo dela.

### Nafarroako hedabideak zifratan

- 11 aldizkari, 6 irrati, 2 telebista, 12 agerkari digital.
- 56 langile, 366 kolaboratzaile.
- 2.061.320 euroko aurrekontua.
- 21.450 etxeetara aldizkariak.
- 125.000 ikus-entzule potentzial Iruñerrian, Lizarran eta Iruñerriatik iparralde osoan.

### Diru-laguntzen bilakaera

1999	2003	2007	2008	2009
211.718,49	228.156	210.430,29	156.000	9.567

ustez, "gu ezin gara besteen etxean sartu, haien pausoen zain gara".

Telebista bakarrerako bidean zehaztasun asko hartu behar da kontuan, horien artean, egitura, eragileen parte-hartzea, kudeaketa... Horretarako beste tokietan zein telebista eredu dituzten begiratu dute. Ttipi-Ttapa Fundazioa Kataluniako Terrassako adibidea ikusten izan da; han sozietate munizipalak kudeatzen du telebista. Debagoienako esperientzia ere bertatik bertara ezagutu dute. Hura bitariko kooperatiba (mistoa) da; udal erakundeak eta elkarteak eta langileak dira partaide. Hirugarren bidea orain artekoa litzateke: Xaloa Kultur Elkartea, Ttipi-Ttapa Fundazioa, eta biak ezker-eskuin diru-laguntzak eskatzen. Diru-laguntzak jasotzen direnean ongi eta ez direnean gorriak ikusi behar.

Irigoien Ttipi-Ttapa Fundazioko kudeatzaileak ederki azaldu digu egoera: "Bortzirietan denok nahi dugu telebista martxan jartzea, baina nola egin behar da hori? Esaten digute: 'segi, segi!, egin, egin! Guk lagunduko dizuegu'. Egonkortasunik ez, ordea". Emititzeko lizentziarik ez, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak %96,91 murriztuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoan datorren urteko argazkia nolakoa izanen den zain, bi telebisten artean 160.000 eurotik gora jasotzen baitituzte.

Telebista bakarrerako bidean, orain, paperean zirriborroak egin eta egin ari dira proiektuak nolakoa beharko lukeen zehazteko. Maiatzaren bukaeran izango dugu berri gehiago. ■

Herriko plaza 2/g • 20150 ADUNA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 69 34 81

**Uztartza**  
ATERPETXEA eta JATETXEA

Eguneroko menua  
Asteburuetan betiko sukaldaritza